MUTRIKUKO HERRI-ALDIZKARIXA
2007ko ekaina
63. zenb.

KALAPUTXT

Udako aisialdirako eskaintza gazteentzat

Maite Mugartegi

bogan apar artean

Praileaitz

Arno-Izarraitzen beste altxor bat

Bisita gidatuak:

Astigarribia

sukaldeak - armairuak - egongelak

logelak - bainuak - liburutegiak

akilape

Mijoa Industrialdea z/g 20830 Mutriku Tfnoa: 943 60 43 34 -Faxa: 943 60 40 76

utrikuko nstitutua

2007-08 ikasturterako

MATRIKULAK

KALITATEA HEZKUNTZAN

DBH eta Batxilergoak

* Giza Zientziak
* Gizarte Zientziak
* Zientifiko-Teknikoa
* Osasun Zientziak

Titulurik ez duzuenontzat SARBIDE PROBA kurtsoa, Goi mailako zikloa egin ahal izateko

Goi mailako Zikloak

* Administrazioa eta Finantzak
* Instalazio Elektroteknikoak
* Akuakultura Produkzioa

Matrikula epea:
ekainaren 29 tik uztailaren 6ra (biak barne)

Kalaputxi hilabetekarixa

Argitaratzailea:
Karenka komunikazio elkartea
20830 MUTRIKU

Telefonoa: 943 60 34 68 / 635 74 83 93
e-maila: kalaputxi@topagunea.com
Laguntzailea: Mutrikuko udala
Tirada: 2.000 ale
Lege Gordailua: SS-787/01
ISSN: 1579-4792
Inprimategia: GERTU. Oñati.
Banaketa: Mutrikuko Institutuko azken mailako ikasleak

*Kalaputxi*k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Eskerrak ematen dizkizue aldizkari hau kaleratzea posible egin duzuen guztioi

Mutrikuko Udaleko Euskara Batzordeak diruz lagundutakoa

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutakoa

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza-k
diruz lagundutakoa

aurkibidia

Informazioa	4
Zeuk esan	5
Puri-purixan	6-7
Bi hitzetan	8-9-10
Komikixa	10
Hitzakoak	11
Turismua	12-13
Karenka	14-15
Natura	16-17
Aisialdixa	18-19
Historixa	20
e-gazte	21
Kirola	22-23
Zorion agurrak	24
Argazki zaharrak	26
Agenda	28

IRITZIA

ARIMA

Zer da bakoitzarena? Zer da denona? Bakoitzarena dena ezagutzen dugu, maitatzen dugu, zaindu ere zaintzen dugu eta baita defendatu ere gorputz eta arima. Eta denona dena? Ezagutzen al dugu? Eta zaindu? Eta maitatu? Eta defendatu? Gorputz eta arima?

Mutrikuri arima falta zaiola iruditzen zait. Baina herria gurea al da? Gutako bakoitzarena? Eta gutako bakoitzarena bada, zaindu eta defendatzen al dugu gorputz eta arima? Lepoa jokatuko nuke ezetz. Neuk, behintzat, eta horrela aitortzen dut, zenbait gauza ikusita amorrua eta pena hartzen dut baina ez dut gorputz eta arima defenditzen, zaintzen, babesten (herriaz ari naiz, Mutrikuz ari naiz).

Ni herri txikian jaio eta hazitakoa naiz eta han, bideak auzolanean egiten genituen, denon gauzak zirenak, eliza, plaza, eskola, arbolak, geure etxea balira bezala zaintzen genituen, inori ez zitzaion ezeri kalterik egiterik bururatzen eta iturriko harria, porlan faltaz erortzen zenean, biren artean edo hiruren artean jaso eta bere lekuan jartzen genuen. Edozeri arima jartzen genion. Horixe hartzen dut faltan nire bigarren herri honetan.

Gauzak, herriak, arima dutenean, zaindu egiten dira, eta herriari arima herritarrek jarri behar diogu. Herritarrek buruzagietatik hasita, beraz, horixe legealdi honetarako eskaera, alkateari eta bere talde politikoari, gorputz eta arima zaindu eta babesteko herria, herri bizia, denon herria. Hala ere, batzuen erantzukizuna besteena baino handiagoa denez, bakoitzak berea har dezala, agintean egongo denak eta oposizioan egongo direnak, buruzagi bakoitzak bere taldeari arima itsatsi behar dio eta beste guztiok zipriztindu denon arnasaz herriaren arima pizteko. Hala bedi!

Arantza Ugarte

intereseko telefonoak

OSASUNA

Anbulategia (Osakidetza)	943 60 43 00
DYA Mutriku	943 60 33 17
DYA zentrala	943 46 46 22
Mendaroko ospitala	943 03 28 00
Odol emaleen taldea	943 60 39 30
Javier Otxagabia botika	943 19 50 26
Lon Apraiz botika	943 60 32 50
Larrialdiak	943 461 111

ADMINISTRAZIO BULEGOAK

Udaltzaingua	943 60 70 48
	679 16 25 00
Udaletxea	943 60 32 44
Turismo bulegoa	943 60 33 78
Posta zerbitzua	943 60 30 44
Bake Epaitegia	943 60 70 49
Itsas etxea	943 60 34 00

IKASKUNTZA-IRAKASKUNTZA

Goizeko Izarra ikastola	943 60 36 75
San Miguel ikastetxea	943 60 31 95
Mutrikuko Institutua	943 60 36 27
Udal euskaltegia	943 60 30 94
Musika eskola	943 60 37 80
Haur eskola publikoa	943 60 41 19

GIZARTE ONGIZATEA

Gizarte Ongizate zerbitzua	943 19 50 81
Anai Arte jubilatuen egoitza	943 60 34 10
Mikel Deuna zaharren egoitza	943 60 38 71

ZEBITZUAK

Pesa	902 10 12 10
Eusko Trenbideak	902 54 32 10
Loiuko aireportua	905 50 50 05
Hondarribiako aireportua	943 19 23 47

BESTE BATZUK

Liburutegia	943 60 41 82
Kiroldegia	943 60 31 75
Gasolindegia	943 60 32 10
Miruaitz Frontoia	943 60 46 79

Autobusak

MUTRIKU – DONOSTIA – MUTRIKU

Mutrikutik	Astegunak	7:00 / 10:00 / 13:30 / 19:30
	Zapatuak	10:00 / 16:30
	Jai egunak	10:00 / 19:30
Donostiatik	Astegunak	8:00 / 11:30 / 14:30 / 20:30
	Zapatuak	11:30 / 19:30
	Jai egunak	11:30 / 20:30

MUTRIKU – BILBO – MUTRIKU

AUKERAK:

1. BIZKAIBUSen autobusa hartu Ondarroan:
   1- 6:10ean hasi eta 20:10 arte orduro.
   2- 6:40ean hasi eta 19:40 arte orduro.

2. PESAren autobusa hartu Eibarren, haraino Euskotrenen

DEBARA

Astegunetan: 7:20tik 21:20ra, orduro / Jai egunetan: 8:20tik 21:20ra. orduro

ONDARROARA

Astegunetan: 6:55etik 20:55era, orduro / Jai egunetan: 7:55etik 20:55era, orduro

Trenak

Tren guztiak, adierazitako lehenengo ordutik aurrera, **ORDURO**

DEBA – DONOSTIA – DEBA

Debatik 6:44-7:44-...-21:44
Donostiatik 5:47-6:47-...-20:47
Jai egunetan 8:44etan hasiko dira

DEBA – BILBO – DEBA

Debatik 6:43 -7:43 -...-20:43
Bilbotik 6:00 -7:00 -...-20:00
Jai egunetan 8:43etan hasiko dira

DEBA – EIBAR – DEBA

Debatik 6:43 / 7:43 / ... / 21:43 — Jai egunetan, 8:43etan hasiko da
Eibartik 6:13 / 7:13 / ... / 21:13 — Jai egunetan, 8:13etan hasiko da

Zaintzako Botikak (Mutriku – Deba)

EKAINA	
22tik 24ra	M.C. Riveiro (zapatu goizean, Lon Apraiz)
25etik 28ra	Jabier Otxagabia
29 eta 30	Lon Apraiz

UZTAILA	
1ean	Lon Apraiz
2tik 5era	M.C. Riveiro
6tik 8ra	Amaia Zalduegi (zapatu goizean, Jabier Otxagabia)
9tik 15era	Lon Apraiz
16tik 19ra	Amaia Zalduegi
20tik 22ra	M.C. Riveiro (zapatu goizean, Lon Apraiz)
23tik 29ra	Lon Apraiz
30tik 1ra	M.C. Riveiro

OTXAGABIA: 689 58 57 59 - APRAIZ: 630 05 50 97
ZALDUEGI: 669 26 22 01 - RIVEIRO: 667 33 88 90

KAI JATETXEA
- Eguneko menua eta menu bereziak
- Karta
- Bataio, Jaunartze, Ezkontza bazkariak
- Enpresa bazkariak...
MADALENA AUZOA, 4 - TEL.: 943 60 33 44 / 943 60 41 34

gutunak

Gogoratu gutun guztiek agertu behar dutela nork idatzita datozen, nahiz eta ezizenez, inizialez edo bestela sinatuta argitaratu. Ez da argitaratuko norena den agertzen ez duen gutunik.

Utzi esateko duzuna Barrenkalea, 12 - beheko buzoian edo kalaputxi@topagunea.com helbidean.

ESKERRIK ASKO

Dagoeneko badugu udal berria Mutrikun eta batzuei tokatu zaigu dagoeneko lau urtean izan dugun kargua uztea. Nire kasuan, Mutrikuko Kultura eta Turismo Zinegotzi kargua utzi berri dut eta, beraz, gaur inongo ardurarik gabe herritar arrunt moduan esker hitz batzuk luzatu nahi nituzke.

Orain dela lau urte, Mutrikuko EAJ alderdi politikoak bere zerrendaren barnean hauteskundeetara aurkezteko aukera eman zidan, eta lehenengoz beraiei eskerrak eman nahi nizkieke nigan jarritako konfidantzagatik. Hala ere, mutrikuar gehienek eman behar izan zioten beraien konfidantza zerrenda hari eta, beraz, bigarrenik mutrikuarroi eman nahi dizkizuet eskerrak lau urte hauetan gure herriko zinegotzi izateko aukera emateagatik.

Onartu behar dut lau urte eder izan direla niretzat, benetan gustura aritu naizela nire ardurak betetzen. Hau ez zen horrela izango inguruan talde bikaina izan ez banu! Bereziki eskerrak eman nahi nizkieke Marta Amonarrizi eta Jose Antonio Arkauzi, hiruron arteko harreman ezin hobea beharrezkoa izan delako eguneroko lanaz gozatzeko.

Hala ere, inguruan laguntzaile asko izan ditut eta ez nuke inor ahaztu nahi. Eskerrak, baita, Udaletxeko zinegotzi zein langile guztioi, Kultura eta Turismo Batzordekideoi, esker bereziak kultur taldeetatik beti laguntzeko prest zaudetenoi, antolatzen diren ekintzetan parte hartzen duzuenoi eta, baita ere, Estanis Osinalde Alkateari, lau urte hauetan gauzak neure erara egiteko aukera emateagatik.

Aukera hau aprobetxatu nahi nuke, bide batez, gaizki egindakoengatik barkamena eskatzeko. Lau urte hauetan herrian Kultura eta Turismo alorrak hobetzeko nire aldetik ahal nuen guztia egin dudan lasaitasunarekin noa, baina horrek ez du kentzen hutsune zein hanka sartzeak izan ditudanik. Hala ere, nire kargua zintzoki eta garbi bete dudala zin egiten dut.

Bukatzeko, zinegotzi berriei zorionak eman nahi nizkieke eta zorte ona opa, gure udaletxeak borondate oneko gizon-emakumez beteak baitaude, azkenaldian hauen jarduna askotan zalantzan jartzen bada ere!

Ion Gambra Ibarzabal

HERRIAK ESAN DU

Lehengo egun batean lagunarteko afarian izan nintzen. Kolore ezberdin, oso ezberdinetako jendea zen bertan, eta guztiek, gezurra badirudi ere, oso antzeko iritzia zuten: Azken hauteskundeetan argi geratu da herriak zer nahi duen.

Afalondoan esan zirenak zenbait datutan laburbil daitezke: Abstentzioa nagusi (%33); botoa eman zuten herritarren botuen gehiengorik inork lortu ez; talde politiko historikoek boto asko galdu (heren bat ere bai); talde politiko berri bat sortu da indarrez. Honaino datuak.

Datu objektiboez gain, mahai inguruko solasean agertu ziren iritziak ere ugari eta aberatsak izan ziren, guztiak alderdien legearen eraginez gerta zitezkeenen eta ziurrenik gertatuko direnen inguruan. PNVk gehiengoa lortu duela, gehiengo hori ez dela benetakoa, Berdeekin osatu beharko luketela gobernua, ANVn beste izen batzuk agertu izan balira beraiek irabaziko zutela...

Banu eta balitz elkarren artean dabiltz dio esaera zahar batek, eta geuk ere horrela jardun genuen, balizko kontuez. Hala ere, argi geratu zen gauza bat ez dela balizkoa eta, gainera, adostasun osoa izan zuen guztion artean: Herritarrek ez diote konfidantza osorik eman inongo alderdiri. Herriak alderdien adostasuna nahi du, alderdi bakoitzaren aportazioak elkartzea herriaren etorkizuna guztion artean erabakitzeko.

Baina, tamalez, konklusio borobil horretan guztiok bat etorri arren, batek adierazi zuen legea eskuetan hartuta alderdi batek duela gehiengoa eta, hortaz, besteen beharrik ez zuela berea aurrera ateratzeko. Eta hori ere egia da. Ordea, legea bete arren, herriaren nahia betetzen al du jarrera horrek?

Azkenean, gizartea legearen aurretik doala dioen lagunari arrazoia eman beharko diot. Berriz.

Andiko

PINPIRIN
Maider Pinto
Barrenkalea, 9 behea Tel:943 603 420 / mug.:650 341 768



nolako hondartzak aurtengo udan?

Aurtengo udaberrian ez da girorik izan larrua berotzera hondartzara joateko. Hala ere, espero dugu Kalaputxi hau esku artean izaten duzuenerako eguzki izpien indarra nabaria izatea. Baina, nola aurkituko ditugu hondartzak? Izango al da aldakuntzarik? Horren berri emateko asmoz alkatearekin eta "Sanemar" enpresako garbiketa taldeen arduraduna den Yolanda Egurbide mutrikuarrarekin egon gara.

Alkatearen esanez, hondartzek ez dituzte izango aldaketarik, orokorrean, aurreko urteekin alderatuz. Garbitze-lanek berdin jarraituko dute, eta lehenengo hondartzak behin-behineko egoera berdinean jarraituko du. Zerbitzu aldetik ere, Saturraran, Ondarbeltz eta Mutrikuko hondartzek aurreko urteetako zerbitzuen kalitate berdina izango dute.

Jendeak, gero eta gehiago aukeratzen du portua bainua hartzeko, eta, hau dela eta, alkatearí galdetu diogu ea zerbitzuren bat, dutxak edo, jartzeko asmorik ba ote dagoen. Ezezkoa izan da erantzuna. Udalaren eskumenetik kanpo dagoela kaia, eta ezin dutela hor eskurik sartu. Bestalde, teorian, portu guztietan bainua eragotzita dagoela, nahiz eta bestaldera begiratzen den.

Garbiketa kontuez Yolanda Egurbideri galdetu diogu.

Zer da Sanemar?

Gipuzkoako hondartza guztien garbiketa ardura duen enpresa da, Donostiakoak izan ezik (hauek "Fomento Construcciones y Contratas"en esku baitaude). Horrela, bada, Hondarrabitik eta Saturraraneraino dauden hondartza guztien garbiketaren ardura dugu. Kontratua Gipuzkoako Foru Aldundiarekin dugu eta haren aurrean erantzuten dugu.

Nola antolatzen zarete?

Urte guztian garbitzen ditugu hondartzak, baina, jakina, ez maila berdinean. Hiru epetan bereizten dugu urtea: negukoa bat, udaurreakoa bestea, eta udakoa hirugarrena. Neguan lau pertsonako bi talde ditugu: batak Mutrikutik Zumaiara egiten du lan, eta besteak Zarautztik Hondarrabira. Urte sasoi honetan, batik bat, makineria erabiltzen da, esku lanez nolabaiteko bereizketa besterik ez da egiten, hondarra zabortegira joan ez dadin zaborrarekin batera. Goizeko zortzietatik arratsaldeko hirurak arte lan egiten dugu, eta, egoera normalean, Mutrikun astelehen eta ostiraletan jarduten dugu. Uholdeak izaten direnean, Saturraran eta Ondarbeltzek ez dute beste hondartzek adinako lehentasunik, nahiz eta, besteak garbitu ondoren, Ondarbeltz garbitzen aste be-

Udarako prest !
ATXUKALE
JOSTAILU DENDA
TEL.: (943) 60 39 59
Beheko Plaza, z/g
20830 MUTRIKU
Gipuzkoa

Joseba Iñaki Eleizgarai
masajista eta osteopatia
Tel: 630 788 059 - Konte kalea 22, Mutriku

Saturrarango jolasgunea

te eman beharrean aurkitzen garen. Dena den, kalendario aldakuntza guztien berri Foru Aldundiari eman, eta honen oniritzia jaso behar dugu.

Udaurreko sasoian, maiatzaren hamabostetik hogeita hamaikara arteko epean, goizeko zazpietatik eguerdiko ordu biak arte egiten dugu lan, eta hamabi pertsona berri kontratatzen dira; horietatik hiru Mutrikuko hondartzetan jarduteko Sanemarko baten ardurapean. Epe honetan hondarra mugitzen da eskuarea eta galbahea erabiliz.

Udako sasoian ordutegia goizeko seietatik hamaikak arte izaten da behin-behinekoentzat, eta finkook hamabiak arte egiten dugu. Iazko urtetik, gure konbenioa eta Aldundiaren aurrekontua zela eta, jende gutxiago kontratatzen da, eta zulo hori udaletxeek betetzen dute Mutrikun eta Getarian izan ezik. Horrela, Mutrikun, sei lagunen ordez, lauk egiten dute lan.

Zein hondartzatan metatzen da zikinkeria gehien?

Ondarbeltz da zabor gehien jasotzen duena, Deba ibaian behera etortzen den ia guztia. Hurrena Oriokoa da. Adibide gisa, Aste Santu aurretik hirurogei tona zabor jaso genituen Ondarbeltzen hiru egunetan.

Nola konpontzen zarete herriko hondartzen garbiketan?

Saturrarango eta Ondarbeltzeko hondartzetan makineria erabiltzen da nagusiki, baina Mutrikuko lehenengo, bigarren eta hirugarren hondartzetan, makinarik sartu ezin denez, eskuz egin beharrean izaten gara.

Jendearen ohitura aldetik Ondarbeltz eta Saturraranekoa baino okerragoa da Mutrikukoa, eta pentsatuz astean lau egunetan hiru pertsona daudela lanerako, egun bat jai izaten baita, eta zakar poltsak Azpeitiko "Lapatx" zabortegira eraman behar ditugula, kosta egiten zaigu nahiko genukeen garbitasun mailara iristea.

Algak ez dira hondakin kontsideratzen; baina, denbora luzean egotean, euliak eta inguratzen zaizkie eta atera egin behar izaten ditugu. Halamoduzko itsasoak eginez gero, orain-dik eta lan gehiago pilatzen zaigu.

Zer diozu uraren kalitateaz?

Osasun sailak darama horren ardura, eta beraiek hartzen dituzte laginak. Nik dakidanez, Ondarbeltzekoak izaten dira laginik okerrenak.

Anekdotarik kontatzeko?

Asko kontatuko nituzke, baina ez gara hasiko zikinkeriaz hitz egiten. Zerbait esateko, oraindik txundituta uzten nauela zenbat eta zenbat ordezko agin aurkitzen dugun, izugarria da. Bikoteekin ohituta gaude, eta batzuetan animatu ere egiten ditugu beren zereginetan.

Zerbait gehiago?

Ohartxo bat: kontutan izateko komuneko zuloetatik jaurtitzen diren konpresa, zigarro mutur eta antzekoek hondarretan bukatzen dutela, eta, abagunea eman didazuenez, uda on bat opa herritar guztiei.

Lehenengo Hondartza

Hirugarren Hondartza

Hondarbeltz

PAGOAGA S.A.
iturgintza - berogintza - gasa
igeltsaritza - aroztegia
Tel.: 943 74 02 79 - 943 74 05 12
Faxa: 943 74 35 65 / e-mail: pagoagasa@euskalnet.net
San Antolin, 13 - 20870 ELGOIBAR

PANADERIA POTERO OKINDEGIA
GREGORIO AZKUE
ETXEKO TEL. 943 60 43 17
DENDAKO TEL. 943 60 36 43
OKINDEGIKO TEL. 943 60 45 12

AINTZANERI

Bestaldetik etorri zaigu haizea, eta ohi duen isiltasunez, bere zirimolaren barnean, dantzari, eraman zaitu, Aintzane, bere eremura.

"Pintxo"k, gure txakur zuri-beltzak, ez du jolasteko gogorik; begi biak itxi ditu ikasgelako neska-mutilen negar anpuluak masailetan behera ikusi ondoren, eta zokoan etzan.

Hor dituzu zure gorpuaren aurrean, barnera begira, gomutetan murgildurik malkoei eutsiaz. Zuk ereindako hazien uztak dira. Herri honen hatsa diren eta izango direnak. Aspaldiko ikasgela txiro haietan hasi, eta gaur arte poliki-poliki zure eskuetatik elikatu diren hainbeste nerabe, gazte eta heldu. Harro gaude zuk egindako lanarekin. Eskerrik asko!

Hala ere, urteak joan bezala etortzen dira, eta zuk nahiko zenukeen bezala aurrera begiratu beharrean gaude, bizitza bizitzen irakatsi beharrean, eta, herio tarte, berriro irria eta poza izan behar ditugu nagusi gure Goizeko Izarra Ikastolan. Orduan, "Pintxo", gure txakur zuri-beltza, zokotik altxatuko da, eta adi-adi egon ondoren, begi bat itxiko du berriro jolastu nahian.

Agur Aintzane!

BERTAN ELKARTEAREN AUKERA BERRIA

Maiatzaren 2an jarri zuen martxan BERTANek herriko bezeroak saritzeko aukera berria. Jakina da, honez gero, elkarteko dendetan erosi ondoren dendariak bezeroari orri bat ematen ziola orria herriko elkarteko beste dendetako zigiluekin betetzeko. Orrria lehenengo betetzen zuenak 300 euroko saria jasoko zuen eta hara non maiatzaren 31n bezero batek BERTANeko ordezkari batengana orria beteta eraman zuen. Saritua Loli Zapatero izan da, eta 300 euro izango ditu elkarteko dendetan erosteko.

Zorionak, Loli, eta jarraitu herriko dendetako bezero izaten!

PLAZATIK GAZTETXERA 2007: Agin Rezola txapeldun

Ekainaren bian jokatu zen Plazatik Gaztetxera bertso txapelketako seigarren finala, Alaia Martin, Agin Rezola, Mikel Arrillaga, Beñat gaztelumendi, Uxue Alberdi eta Oiez Azula bertsolarien artean jokatu ere. Saio bizi eta parekatuaren ostean, Agin Rezolak jantzi zuen txapela. Bigarren Alaia Martin sailkatu zen, puntu erdira; hortik atera kontuak zeinen estu izan ziren gauzak.

Bazkalondoko saioa izan zen Mutrikukoa, eta Gaztetxea bete-betean giro ederra izan zen bertsotarako. Maila ederra erakutsi zuten guztiek eta lehia gogorra izan zen bertsolarien artean.

Ofiziotan oso saio biziak atera ziren, bai zortziko handian bai zortziko txikian.

Puntuari erantzuteko ariketa nahiko ondo salbatu zuten bertsolariek.

Lehen faseko lanak amaitu ostean ez zen erraza igartzea zein bi bertsolari sailkatuko ziren, oso saio parekatua izan baitzen. Epaileen puntuak batu ondoren, Alaia Martin eta Agin Rezolari egokitu zitzaien buruz burukoa jokatzea.

Azken txanpan, Aizak hi mutil mainontzi doinuan hiruna bertso kantatu behar izan zituzten lehenbizi. Ofiziotan eta hitza emanda hamarreko nagusia osatzen jardunda, Aginek aurre hartu zion puntu erdiagatik. Zail da final estuago bat imajinatzen.

Ondoren txalo festa ikaragarria izan zen Mutrikuko Gaztetxean, txapeldunarentzat, Alaiarentzat, publikoaren saria eraman zuen Beñat Gaztelumendirentzat, eta baita beste guztientzat ere.

artizar
fisio lan taldea
San Agustin, 10 behea - Mutriku - 943 60 36 55
masajeak baino askoz gehiago

koadrila afariak, bazkariak, bataloak,
eguneroko menua
MUTRIKU - DEBA ERREPIDEA
LARANGA AUZOA
Etxeko Telf. 943 60 31 17
Jatetxea Telf. 943 60 31 67
SAN JUAN
MUTRIKU

EUSKAL JAIA, GURE AMETSAREN ESKUTIK

Ekainaren 24ean, San Juan egunean, herriko kaleak txistu soinuz eta dantzari lirainez beteko zaizkigu eta beraiekin dakartzaten alaitasunez zipriztinduko gaituzte.
Azken egunotan Gure Ametsa Dantza Taldekoak antolaketa lanetan dabiltza Euskal Jaia ospatzeko. Aurtengoan talde gutxiago omen datoz, San Juan eguna izanik, taldeek zailtasunak baitituzte gurera etortzeko. Hala ere, egun osoko egitaraua prestatu dute gure gozamenerako:
Goizeko 10:30etan Alboka aurreko plazan bilduko dira dantzari guztiak, 11:30ak aldera herrian zehar kalejiran ibiliko dira dantza ezberdinak eskainiz.
Eguerdiko ordu 1ean, Goiko plazan, dantza talde bakoitzak bina dantza egingo dituzte. Ondoren, ordu 2ak aldera, bazkaltzera! Aurten ere, etxeetan bazkaltzeko dantzariak hartu nahi dituenak Potero okindegian, Panadei Berrin eta Birjinia gozotegian eman dezake izena. Animatu gaitezen festa eder honetan gure hondar alea jartzera!
Gero, arratsaldeko 5etan Dantza Alardeari hasiera emango zaio eta ohiturari jarraituz, Arin arin, Fandango eta Larrain Dantzarekin bukatuko dute. Azken hiru dantza hauetan herriko edonork parte har dezake, bakoitzak bere abileziak erakutsiz. Ea ba astindu ditzagun oin, gerri eta besoak!

MARTXAN DITUGU KAYAKAK!



Aurtengo udan ere hortxe daukagu kayaketan ibiltzeko aukera paregabea. Ekainaren 30etik irailaren hirura arte, larunbat eta igande guztietan eman ahal izango ditugu paseo freskagarri bezain jostagarriak ontzi lirain horietan. Bazkaldu aurretik, 11:30etatik 13:30etara bitartean, eta arratsaldean, berriz, 16:30etatik 18:30etara.
Parte hartzeko bazkide egin beharra daukazue eta, horretarako, izena eman eta 10,00 euro ordaindu besterik ez dago. Zoazte arraun taldearen lokalera edo dei ezazue telefono honetara: 606920329 (Ortiz). Hortik aurrera, irtenaldi bakoitzeko 2 euro kobratuko dituzte.
Hemezortzi urtetik beherakoek gurasoen sinadura beharko dute itsasora atera aurretik. Izan ere, segurtasun kontuak gero eta estuagoak baitira guztiontzat.
Ez ahaztu, urtero bezala, Piñastegi egunerako kuadrilen arteko estropada prestatzen hasi nahi dutenek ere batelak eskura izango dituztela. Animazaitezte eta hasi entrenatzen Kalbaixuetarako!

JOSE ANGEL ANSOLA
"TAXI" zerbitzua
Tel.: 943 60 30 06
MUGIKORRA: 607 60 30 22
Txurruka plaza 4, 4.a
20830 MUTRIKU

DEBABE UDAL EUSKALTEGIAK
lan-poltsa osatzeko irakasleak behar ditu
oinarriak eskuratzeko ondorengo helbideetan: www.udalesuskaltegiak.net - www.mutriku.net - www.deba.net - www.elgoibar.org - www.ikasbil.net
Elgoibarko Udal euskaltegian: 09:00etatik - 13:00etara Tel: 943 74 27 31

LOKARRIREN SINADURA BILKETA



Lokarri, Akordioa eta kontsultaren aldeko gizarte sareak, **herri-kontsulta baten aldeko sinadura bilketa** jarri du martxan. Lokarriren helburua, gizartea modu zuzen eta demokratiko baten bere iritzia emateko aukera izatea da.

Lokarriren ustez, gure gizarteak argi ditu errespetatu beharreko printzipioak:

1. Biolentziaren amaiera eta giza eskubideekiko errespetua.
2. Elkarrizketaren aldeko apustua, gizarteak pairatzen dituen arazoak konpontzeko metodo gisa.
3. Gure bizikidetza bakean eta demokraziaren bidez kudeatzea posible egingo duen hitzarmen plurala eta inor baztertuko ez duena lortu beharra.

Horrexegatik, ekainaren 8tik uztailaren 8ra arte herriz-herri joango den furgoneta antolatu dugu. Mutrikun ekainaren 23an, larunbata, izango da arratsaldeko 18.00-20.00 bitartean Goiko plazan. Bertan herritarrek beren sinadura emateko aukera eta herri-ekimenari buruzko informazio gehiago jasotzeko aukera izango dute.

MUTRIKUN EUSKARAZ BIZI GARA

Duela pare bat aste jarri dituzte herriaren hiru sarreretan horixe dioten kartelak: Mutrikun euskaraz bizi gara.

Batek baino gehiagok pentsatuko du hori tontakeria hutsa dela, eta beharbada arrazoi dute. Hala ere, kanpotik datorrenari, herrira ailegazearekin batera, erakusten zaio gure herrian natural-natural bizi daitekeela bera ere euskaraz, hain zuzen ere, populazioaren %90 inguru euskaraz bizitzeko gai delako.

Udal Euskaldunen Mankomunitatea osatzen dugun herriok, bat eginik, euskara nagusi izango den lurgunea osatzea ere badugu helburu, eta helburu horren erakusgarri uler daitezke kartelok. Errepidean barruna goazela, hainbat herritan ikusiko ditugu horrelako seinaleak, eta, herri horietan geldiunea egiten badugu, bertan euskaraz bizi gaitezkeela jakingo dugu.

Maila kolektiboan "Mutrikun euskaraz bizi gara" esatea baldin badugu ere, ez litzateke txarra izango maila indibidualean geure buruari galdetzea "euskaraz bizi naiz?". Beharbada, orduan konturatuko ginateke oraindik guztiok dugula asko euskarari eskaintzeko.

komikixa — gotzon santander

hitza

ekainaren 15erarte jasotakoak

Eraso eta abusuen aurka batu dira Goiko Plazan

Herritarren antzerki saioa egongo da gaur Eibarren

Berdeen eragina nabaritu da

EAJk bozken gehiengoa lortu duen arren, 200 lagunekin alderatuta beherakada nabarmena jasan du; EAE-ANV 800 boten inguruan mantentzea lortu du

Mutrikuko Institutua HITZA egunkariaren 51. bazkide bihurtu

Laguntzak igo dituzte teilatu eta etxaurre berrikuntzarako

Diru laguntzen eskaerak Konde Kaleko Birgaitze Bulegoaren bidez egiten dira

Aurten hiru herritar omenduko dituzte Pilotarien Batzarrean

Guztira hamaka pertsonek jasoko dute errekonozimendua, hemen egingo dituzte ospakizuna eta asamblada irekiera

Gaur amaituko da musika eskolan ikasturteko epea

Hondartza ireki arren, zabalgunea erabiltzea gomendatu du Udalak

Salmurpranen zerbitzuetan beharrezko egiaztapenak egin dira, Ma Hondarbeitzen normaltasunez irekiko da hondartza

Arnoko III. lasterketan 100 lagun inguruk parte hartuko du

Izena emateko azken eguna gaur izango da; 24 kilometroko ibilbidean guztira 1.396 metrotako aldapa edukiko dute

Arbeko pitzadura konponduko du Gipuzkoako Aldundiak

Errepidea konpondu ahal izateko 240.000 eurotako inbertsioa aurrekusten dute

Arnoko probaren orain arteko marka hobetu du Ezpeletak

Emakumezkoetan Azkorbebeitiak hirugarren tapela berdin du Helena Perezi

«Etapak ez dira oso luzeak, eta horrek ikusgarritasunari lagundu egingo dio»

Euskal Bizikletak Lea-Artibaik eta Mutrikuk dituen puntako bi txirrindulari batuko ditu laz elkarrekin lehenengo aldiz ziren arren, aurten bakoitza beti taldearentzat arituko da

Azken saio ilunak argi izpitan atera ditu mutrikuarrak zelaitik

Lur gaineko 680 kiloko tapeiketako azken saioan ematiza onegiak lortu ez arren, mutrikuarrak bigarren gelditu dira

«Jarraitzaileak taldeko seigarren jokalaria izan dira guretzat»

Aurten sortutako taldearekin ematza ezin hobeak lortu dituzte Zking-ek; Gaboneteko txapela, liga eta 3. mailarako igoera lortu dituzte mutrikuarrek

Agin Rezolak irabazi d Plazatik Gaztetxera

Kamioia trabes gelditu da Zumalaben

Buelta eman nahian, trabatuta gelditu da bilgunean ordu bi inguru

EGIN ZAITEZ Lea-Artibai eta Mutrikuko hitzaKO HARPIDEDUN!

- 8 orrialdeko **kalitateko egunkaria, euskaraz**
- Zugandik gertu gertatzen dena kontatuko dizugu
- 2006an **Harpidedun Txartelarekin zozketa berri ugari!**

hitza

Zubikaraik azken agurra jaso du

DOLUA › Ondarroako bandera, lhurrina eta Biskaiko bandera masta erdian egon ziren atzo; jende asko batu zen azken agurrean

Munduko onenak datoz

HILETA HUNKIGARRIA › Bortsolarien, txistularien eta orfeoiaren agurra jaso zuen; arraunen artetik igaro zuten gorpua

DEITU 94 616 82 02ra!

Egunean 0,20 zentimoren truke

BISITA GIDATUAK
herria ezagutzeko modu erraza (eta III)

Mutriku

Hain txiki ikusten dugun gune honek badu lehen bistan ikusten ez den garrantzia, izan ere, hauxe baita zientzialari gehienek Mutriku herriaren sorlekutzat jotzen dutena. Gainera, leku honen lehen aipamena erromatar garaian kokatzen dute batzuek. Pomponio Mela geografo latindarrak bere "Korografian" Tritium Tuboricum izendatzen du, eta askok Tuborikum horren eratorpentzat hartzen dute Mutriku. Gune honi buruz dugun lehen aipamena 1080 urtekoa da, Bizkaiko jaun Don Lope de Oña Ticlok San Andres eliza-monastegia Susoko monastegiari (San Millan de la Cogolla) eman zionekoa. Aurretik ere izango ziren, Zerratun eta inguruko kobazuloetan, adibidez.

ASTIGARRIBIA AUZOA: Mutrikuren historiaren lekuko

Gune hau, monumentu multzo gisa katalogatua dago, eta oso multzo bitxia osatzen dute bertako zenbait eraikinek, guztiak Astigarribiako kaltzadak lotuak. Kaltzada hau hasieran erromatartzat jo zen, baina, gerora, Santiago bidearekin lotua dagoela esan da. Gaur egun estalirik dagoen galtzada hau Deba ibaitik dator eta bertako dorretxe garrantzitsuenak elkartzen ditu, hala nola, Torre etxea, Juregi eta Etxezabal. Eraikuntza hauek gaur egun baserri gisa erabiltzen dira eta, aldaketa asko jasan badute ere, oraindik ere ertaroko elementu ugari gordetzen dituzte: leiho bikiak, gezi-leihoak, sarrerako arkudun ateak... Gune txiki batean ezaugarri hauek dituzten hainbat dorretxe aurkitzeak gune honen garrantzia erakusten du. Gune aberatsa izango zen seguruenik.

Gaur egun landagune den Astigarribian, jarduera ekonomikoari dagokionez, izan da, bai, aldaketarik historian zehar. XVI. mende aldera, Deba ibaia nabiagarria zen garaian, ontziola izan zen bertan, eta Gaztelatik ekartzen zen artilearen inguruko komertzioa ere oso garrantzitsua zen aldi hartan.

Historian zehar auzo honetan izandako aldaketa guztiak ondoen erakusten dituen elementua eliza da. Garai bakoitzak sortutako behar ezberdinei erantzunez, elizak aldaketak izan zituen eta, hasieran baseliza txiki zena, gaur egungo eliza berezia bilakatu zen. Bitxia, bi eliza baitaude teilape bakar batean.

Seguruenik landaguneko eliza txiki bat izango zen, 1025-1075 urteen

JATETXEA
ERRETEGIA
- Enpresa bazkariak
- Bataio, Jaunartze, Ezkontzak
- Sagardolegiko menua
- Kuadrilako bazkari-afariak
- Eguneroko menuak

Kalbario gaina, 1 - Tel.: 943 60 45 62 / 699 61 14 24

Gizonezkoen ileapaindegia

IMOTZ

Erdikokale, 34 - behea MUTRIKU Tel.: 943 60 41 62

artean eraikia. XI. mendeko eliza honetaz dauzkagun aztarna bakarrak Nekropolia eta Ferra arkudun leihoa dira. Ferra arkudun leihoa oso bitxia da. Hasieran bisigotikoa zela zioten, baina, azkenik, aurre-erromanikoa dela diote. Oso estilo bitxia omen da hau eta Euskal Herrian eman ez zena. Ferra arkuak abozinamendu bat du eta badirudi estilo hau Portugalgo iparraldean gehiago eman zela, beraz, harrigarria izan zen honelako bat hemen topatzea. Bestalde, eta absidean bi leiho agertzen direnez, teoria batzuek diote garai batean bi solairu egongo zirela.

Aranzadi Zientzia Elkarteko zenbait arkeologok urte luzeetan egindako indusketetan XIII. mendera arte eramaten gaituen materiala aurkitu dute: Ehorzketak (era eta garai ezberdinetakoak; zaharrena XIII. mendeko sarkofago bat); txanponak (hilobi guztietan txanponak aurkitu dira, XIII. mendetik XVII. mendera arte); Oihalak (lihozko eta zetazkoak); zeramika eta beira (batzuk erromatar garaikoak) eta metalak.

Gaur egun ikusten dugun eliza XII. mendekoa da. Badirudi Susoren monastegiaren parte izatean dirulaguntzaren bat jaso zuela, inguruko biztanleriaren beharrak asetzeko handiagotze bat egiteko Done Jakue bidean puntu garrantzitsua zelako. Ondorioz, uste da eliza erabat berreraiki zela, izan ere 1108an berriro kontsagratua izan baitzen. Honek esan nahi du, erabat jaso zutela berriro ere eta ez zela erreforma soil bat izan. Aurreko elizaren leihoak erabili ziren. Hori nabarmen geratzen da leihoetako harria eta eraikuntzarena oso ezberdinak izatean.

XIII. mendean, hormekin zuten arazo bat konpontzeko, handitze bat egin zen eta absidea gaur egun bezala geratu zen. Garai hartan kanpoaldean egurrezko harresi antzeko bat egin zen, eta auzokideek beraien batzarretarako ere erabili ohi zuten. Bestalde, aldaketa honek elizaren ingurua ehorzketetarako erabiltzearen amaiera ekarri zuen.

XIV. mendean eraiki zen kanpoko harresiaren lehen solairua eta bi sarrera-ate izango zituen: Gaur egungo sarrera eta bigarrena iparraldean. Atea zegoen lekuan aztarnak ikus daitezke.

Bere ezaugarri guztiak defentsara bideratuak daude, horma guztian zehar gezi-leiho ugari aurkitzen baititugu. Honek adierazten digu garai hartan egoera berezia bizi zela inguru honetan eta, historiari begiratuz gero, aipagarria da mende honetan Gipuzkoa oso aztoratua zegoela Ahaide Nagusien arteko gudak zirela eta. Gainera, kontuan izan behar da inguruan hainbat dorretxe daudela, eta litekeena da beraien arteko liskarrak izatea. Hau dela eta, eliza harresiz inguratu zuten guda momentuetan defendatu ahal izateko eta, bide batez, erreka inguruko ibi garrantzitsua ondo kontrolatzeko.

Garai haietan, Santiagora joateko iparraldeko bidea erabiltzen zuten erromesek Astigarribian egiten zuten ibilbidearen amaiera, hurrengo egunean Arnoko mendigunean barrena Bizkaiko Jaunaren lurretara sartzeko. Elizako bi eraikuntzen artean geratzen den gunea erabiltzen zuten erromesek lo egiteko.

Kanpoko eraikuntza XV-XVI. mendeetan hasi zen, inguruko biztanleriaren gorakada handia izan zela eta. Orduan, kanpoko harresia gorago jaso zuten, kanpoko esparruan bi solairu egiteko eta barnealdean banandutako espazio ezberdinak lortzeko.

XVIII. mendean ere eraldaketa ugari jasan zituen elizak, esanguratsuenak kanpoko ataria eta koru berria eraikitzea.

Kanpoko hormak handiagotuta, gune berriei erabilera ezberdinak eman zitzaizkien. Adibide gisa, XIX mendean eskolak emateko egokitu zuten kanpotik sarrera zuzena zuen gela, elizkizunetarako guneetatik bananduta. Gune aberatsa zela edo biztanle kopuru handia izan zezakeela adierazten digu datu honek, irakasle bat honaino ekartzeko ahalmena baitzuten, horrek izan zezakeen gastu handia kontuan hartuta.

Ikusi denez, mendez mende eraldaketa handiak jasan ditu San Andresen elizak, azkenak XX. mendean. 1969-70ean egindako errestaurazioan, egurrezko estruktura eta bi eraikuntzen arteko erlazioa bistan uzteko kainoi ganga eliminatu zen; eta 1990ekoan paretak eta egurrezko estruktura guztia indartu zen.

Benetan zirraragarria gertatuko zaio bisitariari eraikuntza honen ebolUzioa ikustea, nola joan den aldatzen bere ingurunearen historiarekin batera, eta hori guztia bere harrietan irakurtzea. Benetako ondare historikoaren barnean dagoela pentsatuko du bisitan Astigarribira hurbiltzen denak.

mutriku

BERISTAIN
DENDA LURRINDEGIA ESTANKOA
943 60 35 44

OKILA
SUKALDEKO ALTZARIAK
EBANIZTERIA
OKILA AROZTEGIA S.L.
Txirritxa - Mutriku
Tel. 943 60 40 18 - Faxa: 943 60 31 03

MAITE MUGARTEGI

BOGAN APAR ARTEAN

18 urte bete berri ditu, maiatzaren 28an egin zituen. Markinan ari da Batxilergoa bukatzen, aspalditik dabil akordeoi taldean, eskubaloian ere jokatzen du, asteburuetan taberna batean lan egiten du, DYAko sorosle titulua atera berri du... Ez da ez, geldirik egotekoa! Guk, dena den, beste aitzakia bat topatu dugu Maiterekin hizketalditxo bat izateko: arrauna; horixe baita azken bolada honetan bere ekimen guztien ardatz nagusia.

Kontaguzu, Maite, noiz hasi zinen batelean arraunean...

Mutrikun bertan hasi nintzen orain dela lau urte, baina ez nuen jarraitzerik izan eta Ondarroara joan nintzen. Hasieran oso gogorra iruditu zitzaidan ondarrutarren martxa: Mutrikun arraunean egiteko elkartzen ginen; han, berriz, irabazteko egiten zuten...

Hasieran bigarren ekipoan ibiltzen nintzen, berria nintzelako eta talde titularra osatuta zegoelako. Gero, jubeniletara pasatu ginenean, lau juxtuak ginen eta denok titular!

Maila horretan oso jende ona ibilitzen da, eta adin topea hogeita hamar ingurukoa edo izango da. Gu hasi berriak ginen kategoria horretan; baina, hala ere, hirugarren gelditu ginen Euskadi mailan. Hori asko izan zen guretzat! Gero Espainiako txapelketan ez genuen ezer lortu, galiziarrak geratu ziren aurreneko postuetan.

Hori guzti hori iazko denboraldian izan zen. Aurten, berriz, esperantza handirik gabe hasi ginen, baina Bizkaian irabaztea lortu genuen (Portugalete izan zen talderik gogorrena). Ondoren, Gipuzkoan To-

> Egunero entrenatzen dira; libre duten egunean entrenamendu biguna egiten dute: korrika egitera joaten dira.

Kiropraktiko Zentroa
- Bizkarreko, lepoko eta buruko minak.
- Oin, orkatila eta belaunetako arazoak.
- Sorbaldako arazoak.
- Hernia diskala.
- Eskuetako inurridura.
- Tenislari ukondoa.
- Golf-jokalari ukondoa.
- Erditze ondorengo minak.
- Estresa.
- Migraina.
- Ziatika.
- Lunbalgia.
- Zorabioa.
- Sakroilitia.
- Tortikolia.
- Fibromialgia.
- Neke kronikoa.
- e.a.
J. Carlos Sánchez D. C.
Kiropraktikan Doktorea - Glamorgaineko Unibertsitatea (Erresuma Batua)
Bergara kalea 23, 2. esk. - Donostia Tel: 943 245 339

JARRI-TOKI
Jatetxea
- Eguneko menua eta karta
- Familia giroko bazkariak
- Enpresa bazkariak
- Ezkontza, bataio, Jaunartze...
Tel. 943 60 32 39 MUTRIKU

"Ni berez naiz horrelakoa: ez naiz geldirik egotekoa"

losaldekoei irabazi genien, eta hortik, Espainiako txapelketara, Galiziara. Meiran jokatu zen estropada, itsasoan. Guretzat oso ezberdina zen ibaian ohituta geundelako; gu beti errekan entrenatzen gara eta oso desberdina da itsasoan egitea...

Oraintxe hasi gara trainerilan itsasoan entrenatzen, baina batelak desberdinak dira: hain txikiak izanda, ez da erraza olatuen aurka egitea.

Nola joan dira gauzak traineriletan?

Bizkaian, ligila guztian zehar proba guztiak irabazi ondoren, juxtu bandera egunean, bigarren gelditu ginen. Gero, Euskadin, berez hirugarren geratu ginen larunbatean. Ohorezko tandan sartu ahal izateko aurreneko lauren artean egon beharra geneukan, eta horrelaxe gindoazen, baina estropadan goazela horren berri izan genuenean, erritmoa jaitsi genuen eta 10 segunduko penalizazioa ezarri ziguten estatxia azkarregi soltatzeagatik. Gu ez geunden ados eta juezak ez zeukan bideorik... Bosgarren geratu ginen, beraz. Hurrengo egunean geure bideo bat eraman genuen oker jokatu zutela demostratzeko, baina berandu zela eta ez zuten rektifikatu. Ezin izan genuen ezer egin; lotsagarria izan zen! Igandean kontsolazio tandan jokatu eta irabazi egin genuen: lehenengoaren denboratik 2 segundutara gelditu ginen, baina sailkapen orokorrean bosgarren.

Zer moduz Asturiasen jokatu den Espainiako txapelketan?

Espainia osoan nesken trainerila gutxi daudenez, Euskadiko lehenengo bostok klasifikatu ginen.

Antolaketa aldetik desastre hutsa izan da. Bi egunetan ordu eta erdi beranduago hasi ziren estropadak; balizak eta, gaizki ipinita: batzuen bidea luzeagoa zen besteena baino... desastre bat. Guk bagenekien ez geneukala aukerarik, galiziarrek egurra eman digute, bateletan bezala...

Hala eta guztiz ere, sekulako parranda egin genuen: denboraldia amaitu eta poz-pozik geunden eta.

Izaten al duzu beste ezertarako astirik?

Eskubaloian nabil aspalditik. Astelehen, asteazken eta ostiraletan, eskubaloian entrenatu ondoren zuzenean joaten naiz arraunean egitera. Arrauneko entrenamenduak iluntzeko 7ak edo 8ak inguruan izaten dira. Ohitu egiten zara. Musika eskolara astean behin eta bitan joaten naiz, eta dantzetan ere banabil... Askotan lotsa ere ematen dit hainbeste lekutan nabilela esateak.

Entrenamenduak amaitu ondoren, zer?

Udan ere komeni da zerbait egitea, gero, bestela, zaila izaten da argaltzea. Nahiago dut neure burua zaindu. Oporretan ere palaz egitera joan edo beti egiten dut zerbait...

Zeintzuk dira zure asmoak aurrera begira jarrita?

Ez daukat oraindik nire etorkizuna eginda edo. Badakit udan zer egin behar dudan: DYAko sorosle izan hondartzan edo Kirolaz Blai programaren barruan monitore lan egin. Dirua irabazi eta gidatzeko baimena atera. Ez dut uste tabernako lana lagako dudanik; gustura nago lanarekin eta jendearekin (Iratxon lan egiten du, Elgoibarren).

Datorren urtean Magisteritza ikasi nahi dut, kirol adarrean; eta, hori egin ondoren, Heziketa Fisikoan Lizentziatura egitera pasatuko nintzateke; errazagoa da-eta bide horretatik sartzea.

Ez du amaitu nahi gurasoei eskerrak adierazi gabe: "Beti atzera eta aurrera ibiltzen direlako nirekin: partiduak, estropadak, entrenamenduak..."

heidin denda
LIKIDAZIOA
heidin denda
Beheko plaza 1 - tel: 943 60 37 87

ARRIETA
AUTOZERBITZUA
Aliprox
J.M. Altzibar etorbidea · 943 60 31 01

Praileaitz I

ARNO-IZARRAITZEKO BESTE ALTXOR BAT

Ezer baino lehen, argituko dugu Arno eta Izarraitz mendietan zabaltzen diren eremuak maite baino gehiago miretsi egiten ditugula Mutriku Natur Taldekideok, bere balio natural izugarriagatik, gordetzen duten gizaki eta naturaren arteko ohitura eta harremanengatik eta, batez ere, antzinako altxor izugarriak gordetzen dituztelako. Hau guztia etorkizunerako babestea lortzen badugu, eskualderako irudi turistikoaren aldetik motore edo erakargarritasun garrantzitsuena bezela erabili ahal izango da.

Hiru eskualdetan zabaltzen da eremu hau, Urola, Debabarrena eta, zeharka, Artibai inguruan, hirurak bi turismo puntu garrantzitsuren erdibidean, hain zuzen Donostia eta Bilbo artean, eta erakargarritasun berezi bat eskaintzeko beharrean.

Turismoari begira ezin ukatu zerrenda luzea beteko genukeela eskualdean daukagun aberastasunarekin, baina gaur egun beste hainbat eta hainbat eremutatik desberdintzeko irudi berezi bat lantzeko premia beharrezkoa da. Hori adierazteko adibide bat jartzea bezalakorik ez dago: pentsa dezagun zer esaten digun "Valle del Jerte" izenak, seguraski gure arteko oso jende gutxi pasatuko zen bertatik, baina denori erakargarri egiten zaigu inguru hura, eta joateko prest gauden galdetuko baligute gehienok baiezkoa emango genuke.

Gure ikuspuntutik gutxi urbanizatutako itsas eremu hau, bertatik oso hurbil dauden mendi eta bailara bitxi hauek eta gure arbasoen aztarnarekin koktel zoragarri bat presta daiteke irudi hori lantzeko, eta beste balio kultural guztiak aurrekoei erantsi beharko litzaizkieke.

Arbasoen aztarnak agertu diren lekuak kontuan harturik, balio handiko kobak dauzkagu inguruan, orain arte Ekain eta bere erreplika izan dira honen adierazgarri onenak, baina interes orokorra interes partikularrei gainjartzea lortzen badugu, dudarik gabe Praileaitz I ere lehen maila batera igoko da. Gure ikuspuntutik ez dugu turismoa sosak eskualdera erakartzeko makina bat bezala bakarrik ikusten, ikuspuntu globala baitaukagu honetaz, gizartearen aberasgarri, kultura truke eta, gainera, turismorako landu behar den irudi berezitzaile hori eskualdean produzitzen den edozein produktori balio erantsia emateko modu bat ere bada.

Baina, noski, irudi positibo hau lortzeko natura eta balio kultural guzti-guztiak errespetu eta sentsibilitate bereziarekin zaindu eta promozionatu behar dira, eta, komentatu dugun bezala, Arno-Izarraitz eremua hiru eskualdetan zabaltzen denez, promozioaren kostoa ere eramangarriago izango litzatekeela uste dugu.

Ea hemen jende kopuru handi batek Praileaitz I babesteko eman ditugun pausoen berri, baita ere honen alde ezer gutxi egin dutenen berri ere egongo da.

Prozesuaren luzera dela eta, bi ataletan argitaratzea egoki ikusi dugu. Espero dugu bigarren atal horrek argia ikusi baino lehenago administraziotik gehienontzat notizia pozgarria izango dena jasotzea. Honakoan, historia pixka bat egingo dugu, Praileaitzen ingurukoak orain norbaiti bururatu zaion kontu bat ez dela ikus dezagun.

PRAILEAITZEN HISTORIA

1983. Praileaitz I-en aurkikuntza: Astigarrabiako Torre baserriko Jesus Mari Aranberrik gidatuta, Azkoitiako Munibe Taldekoek koba aurkitu zuten urtarrilaren 2an; handik pixkatera egindako katetan (katak) aztarnak topatu zituzten. Denbora eta erosioaren ondorioz sarrera eta barruko galeriaren zati handi bat lurrez estalita daude.

1999. Aranzadik indusketak hasteko agindua jaso zuen.

2000-XI-23. Eusko Jaularitzaren Ingurugiro Inpaktu Adierazpenak koba osorik ustiatu eta gero Zeleta harrobiak koba txikitzeko baimena eman zuen.

2001-VI-25. Industria Saileko Meatze zuzendaritzak Zeleta harrobiari "C" kategorian katalogatu zuen (inguruko terrenoak desjabetzeko aukera eman zion) eta eremu zabal bat eman zion, 160 bat Ha., bertan Mutrikuko Astigarribia auzoa eta Arno mendiaren puxka bat ere bertan sartuta.

2005-X. Azken bost urteko ustiaketetako aurkikuntzak jendaurrean aurkeztu ziren. Aurkitutako 29 zintzilikarioak erakutsi ziren. Liburu bat argitaratu zen, Praileaitz I Haitzuloa (Deba). Madeleine Aldiko Zintzilikarioak. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ahaldun Nagusiak kobazuloa gordeko dela adierazi zuen. Adierazpenetan eta Liburu honetan argi geratzen da haitzulo hau ez dela aur-

kitutako bizileku arrunt bat, bertan erritual txamanikoak egiteko erabiltzen ziren aztarnak agertu ziren. Europa mailan izugarrizko garantzia hartu zuen Praileaitz I-ek.

2005-X-13. Mutriku Natur Taldeak, Garan argitaratutako eskutitzaren bidez, Ahaldun Nagusia eta Debako alkatea zoriondu zituen babesaren aldeko adierazpenengatik eta Eusko Jaularitzari babesa ziurtatzea eskatu zion.

2006-X. Leherketa baten ondorioz, koba barruan ur isuriak eta lur jausiak gertatu zirela eta arkeologoak koba barruan egonda ere estandak gertatu zirela adierazi zen Aranzadiko txostenetan.

2006-XIII-4. Haitzulo barruan topografiako lanak egiten ari zirela, pinturak aurkitu zituzten. Benetakoak direla ziurtatzeko Markos Garzia Doktorea ekarri zuten eta honek zorioneko berria (gehienentzat) ziurtatu zuen. Margoak puntu gorri batzuk eta marra batzuk dira, 18.000 urteko antzinatasuna eta esanahai sinbolikoa daukatenak.

2006-X-25. MNTk berria jaso eta harrobiaren ustiaketa-erritmoaren bizkortzearekin larrituta, eta Deban Amenabar enpresa ikutuezinean arnasten den etsipenarengatik, batzar nagusia antolatu zen aurrerantzean nola jokatu adosteko.

2006-X-30. Eusko Jaularitzako Kultura Sailari eskutitz bat bidali zion MNTk, hau guztia adierazten eta Monumento Adierazpen prozesuari hasiera emateko eskatzen. Eskutitzaren kopia bat bidali genuen Gipuzkoako Foru Aldundira, Debako Udalera, Debegesara, Aranzadira eta Ingurumen Fiskaltzara egin beharrekoak ez egiteagatik delitorik susmatzen ote zuen ikusi zezan (uztailaren 4an aurkitu zituzten margoak eta urriaren 30a iritsia zen).

2006-XI-3. Noticias de Gipuzkoa egunkarian lehen orrira ailegatu zen gaia. Eguardira arte beste irrati, telebista eta aldizkari digitalek ez zuten haren berri ema. Gero jakin genuen goizean zehar administraziotik dei ugari egin zirela zuzendari bulegoetara. Notiziak hartu zuen zabalkundeak bultzaturik Eusko Jaularitzako Kultura Sailak Ondare Kultural bezela adierazteko prozesuari hasiera eman zion. Haitzulo sarreratik 100 metro baino hurbilago leherketak egitea debekatu zuen, alegazioak egiteko 20 eguneko epea irekita.

2006-XI-25. Ahaldun Nagusi Gonzalez de Txabarrik margoen aurkezpen ofiziala egin zuen bitartean, "mesiánico" eta "radikal" bezala tratatzen gaitu haitzuloaren babesa eskatzen dugunok.

2006-XII-8. Kontuan harturik kobazuloaren galeriek 60 metroko sakonera daukatela, MNT, Eguzki eta Ekozain Taldeak, beste 40 talde eta partikularrekin batera, estanda gabeko gunea 100 metrotik 300 metrotara handitzea eskatu genuen.

2007-I-3. Kultura Sailetik alegazio epea beste 10 egun luzatu zuten Gipuzkoako Foru Aldundiak eskaturik. 10 eguneko epe hori EAEko Boletinean argitaratzen zen egunetik kontatzen hasten zen eta otsailaren 3an oraindik ez zen argitaratu (prozesuaren hasieratik 3 hilabetera).

2007-I-27. GARA egunkarian Administrazioak daraman jarrera "pasiboa" ikusirik Euskal Artista eta Kultura munduko Profesional talde batek manifestu bat luzatu zuten kobazuloaren babesaren alde. Praileaitzen Lagunak Elkartea sortu zen.

2007-II-1. Noticias de Gipuzkoak Ondare Kultural adierazpenaren atzerapen ulertezina argitaratu zuen, eta kanteraren zeruko argazki bat argitaratu zuen, bertan egoeraren larritasuna argi eta garbi agertuz.

2007-II-3. MNTren gutun bat argitaratu zuten Noticias de Gipuzkoak, DVk eta GARAk, bertan egoeraren larritasuna adierazita. Berriro ere MNTri prentsan argitaratutako gutunak sortutako iskanbilagatik, Kultura Sailak EAEko Boletinean argitaratu zuen urtarrilaren 3an emandako erabakia. Orduan hasi zen kontatzen alegazioak egiteko 10 eguneko luzapena.

2007-II-9. Jesus Mari Agirrezabalak Debako Alkateak eskutitz bat argitaratu zuen Noticias de Gipuzkoan, bertan babesaren alde eginez eta udaletik ere alegazioak aurkeztu dituztela esanez.

2007-II-10. Debako Ezker Batuako Iñaki Garzia zinegotziak publikoki eskatu zuen El Correo egunkarian harrobiaren paralizazioa eta Jarduera Lizentzia kentzeko eskatu zion udalari. Praileaitz I-en parean baina harrobia ustiatzen ari den eremuan bi galeria berri agertu izana adierazi zuen, eta honen ezkutatze saiakera egitea ere bai. Oso posibletzat jo zen hasieran Praileaitz I koba berberaren galerien muturrak zirela.

2007-II-13. Debako elkarte eta alderdi politikoen arteko batzarra manifestu bat argitaratzeko kobaren babesa eskatzen.

2007-II-14. Praileaitzen Lagunak elkarteak publiko egiten du manifestu bat egoeraren berri ematen. Manifestua publiko egin baino ordu bat lehenago Gonzalez de Txabarri Ahaldun Nagusia eta Kulturako Zuzendari Imanol Agoterekin batzar bat izan zuten.

2007-II-17. Alegazioak egiteko epea amaitu zen. Ordutik, Eusko Jaularitzak 12 hilabeteko epea dauka haitzuloa babestea edo haitzuloa eta oraindik geratzen den bere inguru kultural guztia (mendi magal guztia) babestea erabakitzeko. 12 hilabete horiek burututa babes hori gertatu ezean, edozein herritarrek 3 hilabeteko epea dauka atzerapen hori adierazteko eta administrazioak, berriz, 3 hilabete dauka Ondare Kultural babestu adierazteko Monumento izendapenez. Hiru hilabete horiek Administrazioren erantzunik gabe pasatsen badira, prozesua kadukatu egiten da eta amaitutzat ematen da, horrela inolako babesik gabe geratuta haitzuloa, urte eta erdi horren ondoren harrobiaren lanaren erruz geratuko litzatekeena.

2007-II-26 Juan Mª Beldarrainen gutuna argitaratu zen Garan eta Noticias de Gipuzkoan; bertan gure agintariak ez dira leku onean geratzen.

2007-III-2. Imanol Agote Gipuzkoa Foru Aldundiko Kultura Zuzendariaren gutuna argitaratu zen, bertan egin behar den guztia egin dela adierazita. Bitartean, MNTtik Foru Aldundiak eskatutako txosten baten berri izan genuen, estandek sortzen dituzten bibrazioek koban dauden pinturetan izango duten eragina neurtzeko egina. Txosten honetan UNE arau bat era maltzurrean aplikatu dutela ikusi genuen. UNE arau hau edifikazioetarako egina dago eta edifikazioek zenbat eta egitura sendoagoa daukaten bibrazio kopuru handiagoa jasan dezaketela esaten du; edifikazio zenbat eta modernoagoak izan eta egitura sendoagoak dauzkatelarik, bibrazio kopuru gogorragoak eusteko gauza direla; alderantziz, edifikazio zaharretan oso tentuz ibili behar dela bibrazioen ondorioekin.

Praileaitzeko pinturak "manto" deitzen diren egitura batzuen gainean daude, estalaktitak izango balira bezala baina manta baten itxura hartuta, eta arkeologoen txostenetan adierazten den bezala, honek egitura oso sensibleak izanik edozein momentuan apurtu daitezke. Gipuzkoako Foru Aldundiak enkargatutako txostenean, beste komunitate autonomo batzuetako txostenetan ez bezala, ez dute kokatzen arrisku larrien kategorian eta horrek harrobien lanak behar diren baino hurbilago egitea ahalbidetzen du.

2007ko martxoaren 2tik aurrera gertatutakoak datorren hileko Kalaputxin emango ditugu.

MUTRIKU NATUR TALDEA

UDAN KIROLA ETA JOLASA BATERA

Ikasturteko nekeak eta une txarrak ahazteko ordua da. Egunerokotasunari aurre hartu eta herriko ume zein gazteek badute ekainean eta uztailean zehar barruko indar guztiak non erre. Aukerak, bat baino gehiago: Udabentura, Gaztelekua, Kirolaz blai...

Honetaz guztiaz gehiago jakin asmoz Txantxangorri asialdi taldekoekin mintzatu gara eta beraiek eman dizkigute xehetasunak.

Zein da zuen bilakaera?

Aurten zortzi urte beteko dira umeekin lanean hasi ginela. Gure jarduna 3 eta 18 urte arteko ume zein gazteekin burutzen dugu, eta gure zerbitzuak bi zatitan edo bi arlo ikutzen ditu: Iratxo Ludoteka batetik eta Gaztelekua bestetik.

IRATXO LUDOTEKA: Urritik ekaina bitartean egoten da zabalik eta adin tartea 3 urtetik 12 urte bitartekoa da. 2006-2007 ikasturtean 90 bazkide izan ditugu. Aisialdiaz gozatzeko txoko desberdinetan banatutako lekua da: sukaldea, logela, irakurketa txokoa, jolas txokoa, denda eta tailer txokoa. Ludotekako partaide izateko urte hasieran bazkide egin behar izaten da.

GAZTELEKUA: 2006ko abenduaren 28an zabaldu zituen ateak. Irailetik uztailera arte irekita egoten da, eta 12-18 urte bitarteko gazteei dago zuzenduta. Sarrera librea da eta ekintza desberdinak egiten dira: ikastaroak, irteerak, tailerrak... Orain Jacara joateko asmotan gabiltza eta dirua biltzen ari gara. Horretarako gazteek tailer desberdinak egin dituzte eta

aparra
Udarako eskaintza paregabea!
JANTZIAK - PITXIAK
Erdiko-kale, 29
Tfno.: 943 60 45 94
20830 MUTRIKU
(Gipuzkoa)

ATERPE
ALTZARIAK
Erdiko Kale 22
943 60 44 38
LATEX KOLTXOIAK %20 GUTXIAGO

ekainaren 23an, San Juan bezperan, azokan salduko ditugu. Arratsaldean haurrei eskainitako txoko bat egongo da buruhandiekin batera. Gauean, berriz, antzerkia egongo da moilan.

Gaur egun, zer eskaintzen ari zarete?

Urtean zehar ekintza desberdinak egiten ditugu, baina Gabonetan, Aste Santutan eta udan lan gehien egiten dugun garaia izaten da. Ekintza hauek 3-12 urte bitarteko haurrei zuzenduta daude.

Udan udaleku irekiak antolatzen dira: Udatxiki (3-5 urtekoentzat) eta Udabentura (6-12 urtekoentzat). Honetarako lehenengo izena eman behar da. Ondoren, haur kopuruaren arabera, begiraleak aukeratzen dira; normalean, mutrikuarrek eta gai honen inguruan esperientzia edo ikasketak dituztenak dira. 3-5 urte bitartekoekin begirale bat egoten da 8 umerentzat eta 6-12 adinekoek begiraleko 10 ume izaten dituzte.

Gai honen inguruan behin eta berriz diogu ezinbestekoa dela epearen barruan izenak ematea, bestela lekurik gabe gelditu daitekeelako. Aurten ere haur asko kanpoan gelditu dira gure aurreikuspenetatik kanpo gelditu direlako, eta ikaragarrizko pena ematen digu umeak kanpoan gelditzeak. Adibidez, epe barruan ibiliz gero, 1go zikloko 33 haurrek izena eman badute 4 begirale jarriko lirateke eta berez 7 haur gehiago edukitzeko aukera izango genuke, baina aurten kopuruak hain justuak izanik haur batzuk kanpoan gelditu dira.

Zein da zuen filosofia?

Aurrera eramaten dugun ekintza bakoitzak badu bere helburua, baina orokorrean esateko, ondo pasatzea, harremanak egitea, aisialdiaz gozatzea, ekintza eta joku desberdinen bidez heziketa ez-formala ematea...

Hau guztia antolatzea ez da lan samurra izango...

Ez, lan handia egin behar da. Aurten Getarian izan gara udako egitaraua antolatzen. Beti kanpora jotzen dugu eta beste begiraleekin batera aritzen gara lanean. Ekintzak antolatzeaz gain, gure arteko eta guztion arteko konfidantza eta harremanak lantzea da gure helburuetako bat.

Aurten 20 begirale eta 2 koordinatzaile arituko gara 167 umerekin. Badugu, bai, gure indarrak non xahutu. Malenak pasa ondoren aurtengo ebaluaketa egingo dugu.

Lan ikaragarria egitez gain, eurek ere ondo pasatzen dute eta zer gehiago eska dakioke inori? Animo eta aurrera!

KIROLAZ BLAI

Udaletxeko Kirol zerbitzuak ere urtero antolatzen ditu udari begirako ekintzak. Hau irakurri orduko irakurleek izena emateko epea pasata izango dute, baina, hala ere, gaurkotasunik galtzen ez duelako aipatuko dugu zer eta nolako ekintzak burutuko dituzten aurtengo Kirolaz blai edizioan.

Helburua: haurrak kirol ezberdinak ezagutzean datza, hauen oinarrizko ezagupena eduki dezaten, etorkizunean norberaren gustuko kirola aukeratu ahal izango dutelakoan. Horretaz gain, talde lana eta haurren arteko erlazioa suspertu eta ondo pasatzea dira helburu nagusiak.

Ekainaren 25etik uztailaren 19ra bitarte, astelehenetik barixakura, aurtengo Lehen Hezkuntzako 5. mailatik aurrerakoek jardungo dute hainbat kiroletan, goizeko hamarretatik eguerdiko hamabi eta erdiak arte. Zapatuetan, gainera, ekintza bereziak egingo dituzte.

EGITARAUA

1.astean:
Eskalada eta eskubaloia. Eskalada naturan.

2.astean:
Futbola eta saskibaloia. Saski-futbol olinpiada.

3.astean:
Frontenisa eta herri kirolak.
Itsas motorrak eta urpekaritza.

4.astean:
Kayakak eta arrauna.
Uda kirol olinpiada eta bukaerako txokolatada.

Gero arazorik gerta ez dadin, antolatzaileek gurasoei adierazi nahi diete saioen ordutegia 10,00-12,30 bitartekoak badira ere, taldeetan dauden ume edo gazteak libre dauden orduak ez direla begiraleen ardurakoak. Hori dela eta, mugikorrak, giltzak, baliozko gauzak eta horrelakoak ume bakoitzak zaindu beharko ditu edo begiraleari aldez aurretik gordetzeko esan. Hau beteko ez balitz, begiraleak ez dira galdutakoaren erantzule izango. Ordutegia partaide kopuruaren arabera moldatuko da.

IXURDI informatika
ixurdi@terra.es
Inaki deuna, 37
Tel. 94 603 27 93
Ondarroa / 48700 / Bizkaia
Barrenkale 3
Tel. 943 60 70 58
Mutriku / 20830 / Gipuzkoa

santalucía
ASEGURUAK
NTRA. SRA. DE BEGOÑA
EHORZKETA
Erdiko kalea, z/g · Tel.: 646351352 · 943201095 (24 ordu)

ARGAZKI ZAHARRAK:

Herri nortasuna gordetzeko modu bat

Irakurle askok, zuetako askok, hilean behin etxeko buzoian Kalaputxi aldizkaria jasotzen duenean, aldizkaria hogeita bostgarren orriaren bila zabaltzen du. Argazki zaharren bila doa. Argazki horietan, etxeko norbaiten bila abiatzen da lehenengo, ezagunen bila gero. Pertsonez gain, argazkiak adierazten dituen beste gauza guztien inguruan pentsatzen hasten da. Lehengo ohiturak, lehengo lekuak... Mutriku eta mutrikuarrak izan zirenaren inguruan hausnartzen hasten gara guztiok, gogoratzen. Gu eta gure aldamenekoak.

Kalaputxi egiten dugunok hori badakigu, eta udazken alderako ale berezi bat atera nahi dugu herritar guztiei Mutriku eta mutrikuarrak gai hartuta argazki zaharren bilduma berri bat eskaintzeko. Lan horretarako, ezin bestela izan, Mutrikuko Argazkizale taldearekin batera jardungo dugu.

Aldizkariaren artxiboan argazki asko daukagu, dagoeneko 63 aldizkaritan argitaratuak eta gehiago ere bai, argitaratu gabeak. Baina herritarroi aukera eman nahi dizuegu aldizkari horretan aterako diren argazkiak eskain ditzazuen. Azken batean, Kalaputxin parte hartzen dugunok beti nahi izan dugu eta nahi dugu mutrikuar guztion artean egitea aldizkaria.

Horretarako, atrebentzia handia ez bada, etxean gordeta dituzuen argazkiei errepasoa ematea eskatu nahi dizuegu, eta guregana hurbiltzea. Guk argazki horiek ordenadorera pasatu ondoren itzuli egingo dizkizuegu ondo-ondo zainduta.

Argazkiarekin batera, interesgarria izango litzateke argazkiaren inguruko datuak idatzita ematea: argazkian agertzen diren pertsonen izenak, argazkia atera zeneko urtea, zein unetan atera zen... Datu horiek guztiek lagundu egingo diote, zalantzarik gabe, argazkietan zerbait gehiago ikusi nahi duenari.

Argazkiak uzteko bi toki izango ditu argazkiak utzi nahi dituenak: Kalaputxiren lokala (Luardo etxean, Potero okindegiaren aurrean); eta Iñigo Belen argazki denda. Epea, berriz, uztailaren 2tik 13ra. Argazkiak galtzeko arriskua ekiditeko, eskura jaso eta itzuliko dira argazkiak.

Herri batek zer den jakin nahi badu, nondik datorren jakin behar duela entzuten da askotan, eta nora joan nahi dugun jakiteko atzera begiratu behar izaten dela ere entzuten da sarri. Guk ez dakigu hori horrela den zehazki, baina lehengo zaharretatik, gure aurrekoetatik asko dugu ikasteko, seguru. Argazki zaharrek lagunduko al digute gure iragana gure etorkizunean presente edukitzen.

Ez dezagun inoiz ahaztu izan zirelako garela eta garelako izango direla.

ARGAZKIAK UZTEKO

EPEA: **Uztailaren 2tik 13ra**

TOKIAK: **Kalaputxi (arratsaldean, 17:00-20:00) eta Iñigo-Belen argazki dendan (goiz eta arratsalde)**

Mijoa
JATETXEA
ASTE OSOAN EGUNEKO MENUA:
Aste barruan 7 €
Aste bukaeran 12€
Mijoa industrialdea - Tel.: 943 604 464 / 943 603 180 - Saturraran (Mutriku)

LEA-ARTIBAI
Hileta zerbitzuak - Beilatokia
MUTRIKU Tel.: 943 60 41 20
ONDARROA: Arta Bide, 24 - Tel.: 946 830 960
Mug: 659 879 268

TANGARTA
MUTRIKUKO INSTITUTUKO IKASLEEN EUSKARA BATZORDEA

Tangarta, Mutrikuko institutuko ikasleen euskara batzordea duela urte batzuk sortu zen. Urte hauetan zehar hainbat ekintza egin dute euskara bultzatzeko eta aurrerantzean ere jarraitzeko asmoa dute.

Guk bertako partaide batzuekin egoteko aukera izan dugu, eta hona hemen esan dizkigutenak:

Tangarta izena nondik dator?

Potiña atxikatzeko erabiltzen den objektua edo tramankulua da. Ikasle batzuei izen xelebrea zela iruditu zitzaien eta hori da izenaren jatorria.

Zenbat pertsonak osatzen duzue Tangarta?

Hogei pertsona inguru gabiltza lanean.

Nahiko zaretela uste al duzue?

Bai, baina nahikoa izan arren, jende gehiagok parte hartu beharko lukeela iruditzen zaigu.

Zein da zuen helburua?

Euskararen garrantzia azaldu, Euskara indartu, Euskara bultzatu... Azken finean, Euskararen alde lan egin.

Zer ekintza burutzen dituzue?

Hainbat ekintza gauzatzen ditugu: Egun puntualetan parte hartzen dugu (euskara eguna, Korrika...) eta beste ekintza batzuk ere burutzen ditugu (motibazio saioak eta beste hainbat).

Zuen ekintzek eraginik izaten dutela uste al duzue?

Bai. Jendeak euskararekin jolasean ondo pasatzen du eta, aldi berean, ikasi ere egiten dugula uste dugu. Hala espero, behintzat.

Ikusten al diozue etorkizunik Tangartari?

Bai. Baina horretarako jendeak parte hartu behar du eta, batzuek Tangarta uzten duten bitartean, beste batzuk izan behar dira lekukoa hartzen dutenak.

Zer esango zeniekete ikasleei Tangartan murgiltzeko gogoa pizteko?

Nahiz eta jendeak pentsatu Mutriku bezalako herri euskaldun batean behar askorik ez dagoela, guri beharrezkoa iruditzen zaigu Euskara bultzatzeko talde bat egotea. Gainera, Euskararekin jolasten dugun bitartean, gure hizkuntza ezagutu eta ikasteko aukera polita da.

Egin ezazue ikasturte honetan Tangartaren balorazio bat.

Talde majoa da baina mutilek ere parte hartu beharko zuketen eta geuk ere lan gehiago egin genezakeen. 10etik baloratzeko, 9 bat.

GALDERA AZKARRAK

- **Ekintzarik onena:** Mihiluze
- **Ekintzarik barregarriena:** Mihiluze
- **Anekdota bat:** Mutrikuarrok iada erabiltzen eta ezagutzen ez ditugun hitz asko ikasi ditugu.

UNAI NUÑEZ, JON ARRIZABALAGA, IÑAKI IRIONDO ETA ANE DOVAL Mutrikuko Institutuko Prentsa-tailerrekoak

nora
hortz klinika
· Odontologia orokorra
· Hortz protesiak
· Endodontzia
· Periodontzia
· Hortz estetika
· Kirurgia eta inplanteak
· Hortz zuriketak
Lehenengo ikustaldia eta diagnostikoa, doan
Azpilgoeta, 5 - behea - MENDARO - Tel.: 943 033 575

CAMPING SATURRARAN
HONDARTZATIK 100 m-tara
TEL.: 943 60 38 47 MUTRIKU

OINEZ ALA SALTAKA?

Nerbioso samar denok ere. Ibilaldia edo lasterketa hasi aurretiko luzaketak egiten dihardute partehartzaileek. Guztira 24 kilometroko ibilaldia aurretik. Goiko plazan denak; partehartzaileak batzuk, antolatzaileak besteak. Hasiera emateko txistua noiz joko zain. Honela eman zitzaion hasiera urratsez urrats burutu zuten Arnoko III. mendi lasterketa eta martxari.

Badira hiru urte Burumendi Mendi Elkarteko kideek mendi lasterketa antolatzen dihardutela. Lehena, 2005ean ospatu zuten, mendizale batzuek lasterketa antolatzeko laguntza eskatu eta hor ekin zioten bideari. Orduan Mutrikuko inguruak zeharkatzen dituen ibilbidea aukeratu zuten: Goiko Plazan ekin eta Apain, Arno, Amei, Kostolamendi, Armetxa, Berrosasi, Santakutz, Pikupe, Galdona eta Santa Elena zeharkatu beharko dituzte partehartzaileek. Aurretik adostutako PR GI-22 ibilbidea hautatu zuten, Mutrikuko inguruak ondo igarotzen baititu bira honek. Hori bai, Burumendi mendi elkartekoen ustetan beharrezkoa da edonork parte hartzeko moduko lasterketa antolatzea, eta ez eliteko kirolariek soilik. Azken batean, ibilbide herrikoia baita, kirol eta kultur arloko helburuak dituena; mendizaletasuna hedatzea eta Mutriku inguruko leku eta ibilbideak erakustea, betiere natura erabat errespetatuz. Horixe izan zen helburuetako bat. Ibilbidea aukeratzearako orduan, mendi bideak hautatzen saitu ziren eta ez asfaltatutakoak, hala ere, zenbait tokitan beharrezkoa zen errepidea igarotzea (Busto, Kalbaixo eta Pikupe).

Baina egunean bertan dena prest egon dadin, aurretiko lanak luzeak eta gogorrak dira. Federazioarekin adostu beharrekoa adostu, laguntzaileak, sariak, ertzantzaren baimena, aseguruak eta abarrak prest utzi behar dira. Horrez gain, beharrezkoa da herritarren laguntza: kontrolguneetan, bidegurutzeetan, errepidea mozten, kronometratzen, eta abar luzexka bat. Hala ere, alde horretatik kexarik ez dutela baieztatu dute Burumendi mendi elkartekoek.

Goizeko zortzietan ekin zioten oinezkoek eta bi ordu beranduago lasterkariek. Behin eguerdiko hamabiak jotzear lehenak iritsiak ziren, sekulako beroaz eta basaz jositako bidea amaituta. Pixkana Goiko plaza jendez betetzeaz batera, sari banaketari eman zitzaion hasiera. Behin garaikurrak banatuta, opariak banatu zituzten. Aurten Enperatriz Zita hotelean bi lagunentzako egonaldia eta Kai zein Jarri-Toki jatetxeetan afari eta bazkariak zozkatu ziren, besteak beste. Honela, bakoitzak bere herrirako bidea hartu zuen, batek daki hurrengo urtean berriz itzultzeko esperantzan edo ez.

Besteok, bitartean jai giroari jarraituko genion ibilaldia bezain luzea izango zenaren esperantzan, beti ere *...ikusi mendizaleak, baso eta zelaiak, mendi tontor gainera igo behar dugu...* lelopean.

...TA IBILI MUNDUAN

Aurtengo honetan Arnoko magalak lasterkari eta oinezko gehien bildu ditu. Guztira 250 partaide: 140 korrikalari eta 110 bat ibiltari. Mutrikura iritsi aurretik bidaia labur eta ez hain laburrak egin behar izan dituztenak han izan dira. Inguruotako jendeaz gain, Galdakao, Agurain, Miranda de Ebro, Tolosa, Zornotza, Gasteiz, Donostia, Uharte, Bilbo eta Iruñeatik, golzean goiz etorri diren partehartzaileak. Nola ez, mutrikuarrak tartean: oinezkoez gain, 25 bat lasterkari mutrikuar.

III. lasterketa honetan Zuhaitz Ezpeletak errekorra hobetu duela aipatu beharra dago. Ionut Zinka (1:36:53) errumaniarari 33 segundu atera dizkio, errekorra 1:36:20 segundutan utziz.

TXAPELA BURUAN...

Lehen hiru gizonezkoak:
Zuhaitz Ezpeleta Iturbe (1:36:20, errekorra), Unai Mendia Ugarte (1:43:37) eta Iñigo Lasaga Arburua (1:45:24)

Lehen hiru emakumezkoak:
Oihana Azkorbebeitia Urizar (2:06:57), Elena Perez Gutierrez (2:11:18) eta Maider Fraile (2:17:20)

Beteranoak:
Elena Perez Gutierrez eta Clemente Jesus Bravo Rodao (1:49:24)

Herritarrak:
Kosme Arrieta Mendizabal (1:58:45) eta Amaia Elosegi Aizpurua (2:49:21)

Agurne Elorza

Mutrikuko Udal Kiroldegia
GIMNASIA
AEROBIC
STEP
BODY PUMP
BODY COMBAT
BODY BALANCE
SPINING
JUDO INFANTIL
KANTXA
ROKODROMOA
SAUNA
FITNESS GELA...
Anima zaitez!!
Magdalena, 20 z/g
Tel./Fax: (943) 60 31 75
Mutriku
Kirol Berri S.L.

PILOTARIEN BATZARRA MUTRIKUN

Pilotarien Batzarra sortzearen ideia 1985eko urrian sortu zen, eta Iparraldeko Pilotarien Biltzarra hartu zen eredu, 1957 Baigorrin sortutako elkartea. Pilotarien Batzarreko kideak Gipuzkoa, Bizkai, Araba, Nafarroa, Iparralde, Errioxa eta Kataluniako pilotazaleak dira, era batera edo bestera pilotaren munduarekin, dela pilotari profesionalak izanda, amauterrak, antolatzaileak... harremana izan duten pertsonak biltzen dira bertara.

ELKARTEA

Estatutuetan jasota dagoenez, Pilotarien Batzarrak helburu nagusia du Pilotarekin –kirolik eder eta osoenetako bat– lotutako edozein jarduera sustatzea eta zabaltzea. Gainera, Pilotarien Batzarra elkartean beste eduki filantropiko batzuk elkartzen dira, uneren batean egoera txarrean daudenei laguntzeko balio dezaketenak.

Pilotarien Batzarra elkartearen beste helburuetako bat da hiriburu bakoitzean eta beren historiagatik merezi duten herrietan Pilotaren Museoak sortzea bultzatzea, eta pilota euskal kulturaren zatitzat har dadin lortzea.

Urtero, elkartearen urteko batzarrarekin batera, ekaineko hirugarren igandean, Pilotarien Batzarrak urteko jaia antolatzen du bazkideen eta horren inguruan aurreko aste osoan zehar ekitaldiak antolatu ohi dira. Aurtengoan, Jose Ignacio Urkirik hartutako ardurari esker, Mutrikun ere izan dira argazki erakusketa, argazki lehiaketa, hitzaldiak eta pilota partidak frontoian.

Urteko batzarraren ostean urteko bazkaria ere etorri zen, eta haren ondoren, arratsaldeko pilota partiden aurretik, urteroko omentzeak ere bai. Aurtengoan hamaika izan dira omenduak eta beraien artean hiru mutrikuar: Bittor Arizmendi, Iñaki Albizu eta Jose Ignacio Urkiri.

OMENDUAK

BITTOR ARIZMENDI

Pilotari moduan 19 urterekin hasita, Mallorca, Zaragoza eta Bartzelonako pilotalekuetan jardun zuen. Miami, Manila edo Milanera joateko aukera izan zuenean, lesio batek jokatzeari betiko utziarazi zion.

Pilotari izandakoetan adinean nagusienekoa izanik, Bittor Arizmendik domina jaso zuen ekainaren 17an Mutrikuko zesta-puntako pilotari guztien izenean.

IÑAKI ALBIZU ANSORREGI

Umetatik frontoirako zaletasuna izanda, gaztetan txapelketetan parte hartu zuen pilotari gisa eta antolatzaile gisa ere bai. 1968 urtean Gipuzkoako Federazioak Mutrikurako delegatu izendatu zuen, eta urte horretan bertan Danok Bat pilota elkartea sortzen kolaboratu zuen.

1972 urtean Danok Batek txapela irabazi zuen Gipuzkoako Zesta-punta txapelketan, eta Iñakik delegatu onenarentzako saria irabazi zuen.

1978 urtean Jolas-Nai enpresa sortu zuen, 16 urtetan zehar zapaturo pilota-jaialdiak antolatzen zituena pilotalekuan.

Gaur egun pilotarekin harremanetan jarraitzen du bizileku duen Debako Euskal-Jolas elkartean.

JOSE IGNACIO URKIRI

Futbolean jardun ondoren, narruzko pilotazko paletan jolastu zen. "Danok Bat Pilota Elkartea" 1968 urtean sortu zutenetik 1992 urtera arte presidentea izan da. Elkarteak hainbat txapelketatan partu hartu, eta zenbait txapel irabazi arren, garrantzitsuena pilota eskola sortu izana izan da urte horietan guztietan. Eskolatik gazte asko eta asko pasatu ziren eta horietatik 17 profesional izatera iritsi ziren.

Eskolaren inguruan modu batera edo bestera lan egin zutenak gogoan hartuta: Eugenio Urreizti "Mixkia", Luis Mari Altuna, Andres Gandiaga "Sueco" eta "Periko" Arizmendi eta "Periko" Urreizti izan zirenak.

Gaur egun, Pilota eskolan 25 gaztek dihardute Jon Iñaki Mendizabal "Goixerri" pilotari profesionalaren zuzendaritzapean.

zorion agurrak

ENEKO
Zorionak Eneko! Etxeko erregeak 7 urte dagoeneko! Laster, Leire harrapatuko duzu. Aurtengoan beste mila kilo zorion eskaini nahi dizugu urte osorako. Oparien zerrenda prest duzu? Itxolapikua apurtu guri goinbidatzeko! Zorionak etxeko danon partez!

MAIDER
Zorionak eta muxu haundi bat denon partez, batez ere Josu, Gorka, Eneritz eta Urkoren partez.

OSKITZ
> Zorionak gure printzipeari!!! Oporretan juan 3 urterekin eta 4 urterekin bueltatu. Hau bai dela mutil Handia! Jarraitu beti bezela, zure trastadak eta barreak egiten eta batez ere segi muxu haundi horrek ematen. Zure arrebatxo Iraide, aita eta amaren partez.

> **Zorionak Oskitz!** Zuri opariak emateko zain gaude, baina zuk horren truke txokolatada goxua prestatu! Aitona, amona, osaba eta izekoren partez, Zorionak!

ALAITZ
Zorionak gure pirata guapienari! Ekainaren 30erako prest egongo gera txokolate pillua jateko. Zu bai Pirata del Karibe baiño hobio zerala! Jarraitu horrela. 7 muxu haundi Madera-Beitia-Urangaren partez, eta muxu gehiago Oskitz eta Iraideren partez.

PELLO
Zori zori zorion!
On on onak!

ALAITZ
Zorionak biolinista! Konturatu orduko 10 urte eta señoritia eginda! Oso ondo pasatu zure eguna eta pastelak zeure kontura! 10 mila matxo familia guztiaren partez, batez ere Keylaren partez.

ENEKO
Ekainaren 21ean etxeko printzipeari muxu haundi bana Amado-Erraiz familiak, bereziki Titaren partez.

ANDONI
Zorionak txapeldun! Zenbat eta urte gehixo, orduan eta artistio! Zestan, tronpetarekin... Martxa hontan, profesional! Segi holakotxe xalaua izaten. Zuretzat ere 10 milla matxo danon partez, batez ere Enaran partez.

JON
Zorionak rubio! Zenbat jausi dia...? Hobe ez esan! Ximur asko az zatzu ikusten bitxo aurpegi hortan, baiña urtiak ez deue barkatzen! Pintxua eta koka-kola gure kontura. Matxo asko!

URTZA
Gure lehengusina politxenari zure 3. urtebetetzean. Muak mua, asko maite zaitugu, Beñat eta Manex.

AURORA
Apirilaren 21ean urteak bete dituzunez, Zorionak! Amado-Erraizen partez.

KIKO
Barrebuseko txoferrik alaienari, Zorionak!

ILAZKI
Ekainaren 6an, gure larrosa ponpoxari bere hirugarren urtebetetzean Zorionak! Etxeko guztion partez, batez ere Julen eta Iruneren partez.

NARKIS
Kantatu nahi dut bizitza / usteltzen ez bazait hitza / mundua dantzan jarriko nuke Jainkua banintza! Zorionak aitxona.

EDITH
Zorionak printzesa! ekainaren 19an zure urtebetetzea izan denez, muxu asko eta besarkada haundi bat Mª Isabel eta bere famili osoaren partez. Udan etortzen zarenean txokolatada zure kontu.

Mª ISABEL
Zorionak! ekainaren 13an zure urtebetetze eguna izan delako, muxu asko eta besarkada haundi bat zure familiaren partez. Bazkari eder bat zure kontu. Batez ere, zure bilobaren partez.

UGAITZ
Etxeko erregeari Zorionak! ekainaren 27an 6 urte beteko dituzulako, guraso eta familia guztiaren partez, batez ere: Lander, Ainhoa eta Monikan partez. Prestatu belarriak!

IKERNE
Triki traka triki tron,
amatxito Zorion!

Etxeko inor edo lagunen bat zoriondu nahi baduzu, ekarria argazkia Luardora edo deitu 635748393ra. Guk hemengo txoko honetan sartuko dugu!

argazki zaharrak

1962AN, YURRITA LANTEGIKOAK:
1962ko uztailaren 14an Yurritanetik San Ferminetara egin zuten txangoa.

ATUNETAN. 1986KO ABUZTUAREN 9A. GOIZEKO IZARRAKO TRIPULAZIUA.

Goitxik hasitxa, ezker-eskumin:
Kepa Lizardi, Joxe Angel Arrieta, Jose Luis Lasarte, Mikel Galparsoro, Javier "Xabala", Jesus Elezgarai "Kaxkagorri", Manuel Gutierrez "Patxanga" (†), Rafael Iturrino, Luis Mari Merino Valero"(†), Angel Azpiazu "Patxuelas" (†), Anizeto Arreitunandia "Ani", Jose Mari Arreitunandia "Motrikillo" eta Abel Iturrino.
Patroia, puentian, Rafael Oianguren (†).
Argazkilaria, Wolker alemaniarra.

Jose Angel Arrietak utzitxako argazkixa

ekaina-uztaila

Kalaputxi, 63. zenb.

Ekainaren 18tik

MUTRIKUKO ARTISTEN ERAKUSKETA

Zabiel Kultur Etxeko erakusketa aretoan
Antolatzailea: Mutrikuko Arte Lagunak

Ekainak 23, zapatua

WATERPOLO PARTIDA

Piszinan, eguerdiko 12:00etan.
Antolatzailea: URBAT, IKE

Ekainak 23, zapatua

SAN JUAN BEZPERA

Goizean, azoka Txurruka plazan.
18:30ak aldera: buru handiak
20:30etan: Udal Bandaren Kalejira
22:30etan: San Juan Sua, Moilako Zabaleran
Ondoren, antzerkia
Gaztelekuk antolatuta.

Ekainak 24, domeka

XXVI. UMEEN EUSKAL JAIA

10:30etan: Talde guztien bilkura Alboka Plazan
11:00etan: Hamaiketakoa
13:00etan: Dantzaldia, Txurruka Plazan
14:00etan: Bazkaria
17:00etan: ALARDEA, Txurruka Plazan

Antolatzailea: Gure Ametsa Dantza Taldea
Babeslea: Mutrikuko Udala

Uztailak 1, domeka

MUSIKA BANDAREN KONTZERTUA

Txurruka Plazan, eguerdiko 13:00etan

Uztailak 7, zapatua

AKORDEOI ALARDEA

Txurruka plazan, gaueko 23:00etan

Uztailak 14, zapatua

SPINNING EGUNA

18:00etan hasi eta 22:00etan bukatu. Portuan.
Kiroldegiak antolatuta

TXISTULARI ALARDEA

Txurruka Plazan, gaueko 23:00etan.

Uztailaren 21etik 25era

MALEN JAIAK

***KALAPUTXI* egiten parte hartu nahi baduzu, deitu 635748393ra. Gustura hartuko zaitugu!**

2007ko MENDI IRTEERAK

Uztailak 6, 7 eta 8, barixakutik domekara

Pongako Parke Naturala. Asturias

Irailak 9, domeka

Cruz de Motrico (851 m.) Burgos

Urriak 7, domeka

Lizarra – Montejurra (1.044 m.) – Villamayor de Monjardin (893 m.) – Urantzia. Nafarroa

Azaroak 18, domeka

Artikutza – Mendaur (1.131 m.) - Arantza Nafarroa

Abenduak 2, domeka

Lekeitioko itzulia eta bazkaria. Bizkaia

Antolatzaileak: Mutrikuko Burumendi, Ondarroako Aurrera, Lekeitioko Lumentza, Markinako Alpino eta Debako Burdin Kurutz mendi elkarteak.

2007KO ODOLA EMATEKO EGUNAK

Egun guztietan, Anbulategian, arratsaldeko 18:00etatik 20:00ak arte
Abuztuak 10, barixakua
Urriak 5, barixakua
Abenduak 21, barixakua
Antolatzailea: Mutrikuko Odol Emaleen elkartea

ZER DA? NON DAGO?

Etxea babeslekua izan da. Baina, babeslekua bera kanpoko eraginetatik babestu beharra ere ikusten zuten gure arbasoek. Horrela, leiho, ate eta teilatuak ikusiko ditugu zenbait ikur babeslerekin: erramua, lizarra, eguzkilorea, grabatutako sinbolo edo harrizko gurutzeekin.
Azken horietako bat dugu argazkian azaltzen dena. Azkiaga kalean, guk "Pikua-txiki" bezala ezagutu dugun, eta, "Blandin etxea" izan zenaren teilatupeko ipar-mendebaldeko izkinan zegoen jarrita. Etxea bota zutenean, Jesus Mari Arrieta orduko bikarioak jaso zuen, eta, gaur, parrokiaren atzeko sarreraren aurreko horman ezarrita dago.

Betorkigu etorkizuna
zuk irakatsitako bidetik
betorkigu zoriona
zuk erakutsitako modutik.

Eskerrik asko, Aintzane

.....Euskal irakaskuntzan

HAZI HEZI BIZI

Vitoria Optika

OPTIKARIA - OPTOMETRISTA

>>OSAKIDETZAko graduazioak eta begi-azterketak egiteko kolaborazio akordioa daukagu.

>>IGUALATORIOA, FREMAP eta MUTUALIArekin deskontuak.

>>Graduazioak eta audiometriak etxean bertan ere egiten ditugu.

Audifonoen osagaiak - Altimetroak - **Audifono digitalak** - **Audifono analogikoak** - **Audiometriak** - Barometro digitalak - Eguzkitarako osagarriak - Higrometroak - Igerileku eta kiroletarako betaurrekoak (graduatuak edo ez) - Ikusteko laguntza bereziak - Iparrorratzak - Konponketak - Lan babeserako betaurrekoak - Lupak - Mikroskopioak - Pilak - Podometroak - Prismatikoak - Teleskopioak - Termometroak - Ukipen lenteak (kolorezkoak e.a.) - Zarata, bainu eta lo egiteko tapoiak.

Tel: 94 613 41 38 – email: mvitoria@cnoo.es

Iparkale, 1 – ONDARROA

Yurrita

KALITATEZKO GASTRONOMIA

Ondo jan, osasuntsu jan, ...Yurritarekin jan

Plater prestatuetan aukera zabala

yurrita e hijos, s.a.

Ctra. a Ondarroa, s/n
20830 MUTRIKU (Gipuzkoa)
Tel.: 943 603 245
Fax: 943 604 420
www.yurrita.com